

Ordizian, 2011ko ekainaren 30ean, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, **OHIKO DEIALDIAN**, honakoak bertaratu zirelarik

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: Igor Eguren Izagirre jauna.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Eduarne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturriotz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	PNV taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	PNV taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	PNV taldea

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :

Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea
Iñaki Bolinaga Alzelai jauna	PNV taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	PNV taldea

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi Jauna

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra andrea

BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- Osoko bilkuren maiztasuna.
.....33.orr.
- 2.- Informazio Batzordeak eratzea.
.....33.orr.
- 3.-Udalbatzaren menpeko Kide Anitzeko Udal Organoetako ordezkariak izendatzea.
.....33.orr.
- 4- Tokiko Gobernu Batzordeko kideen, ordezkari eta alkateordeen izendapenari buruzko Alkatearen ebazpenak jakinaraztea.
.....33.orr.
- 5.- Osatutako Talde Politikoen eta horien bozeramaleen berri ematea.
.....33.orr.
- 6.-Alkateak dedikazio eskusiboa izateko proposamena.
.....33.orr.
- 7.-Udal taldeen eta zinegotzien diru-kopuruak.
.....33.orr.

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

- 8.- Borondatezko lankideentzako diru-laguntzak.
.....33.orr.

GORABEHERAK

- .- Bost minutuko etenaldia 3. puntuan

ORDUTEGIA:

HASIERA ORDUA: 19,00 h

BUKAERA ORDUA: 19,45 h



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- Osoko bilkuren maiztasuna.

Proposamena

Hileko azken ostegunetan egingo dira ohiko Osoko Bilkurak, 19:00etan.

Uztaila eta abenduko bilkurak, astebete aurreratu ahal izango dira.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Osoko bilkurak egiteko proposamena hilean behin, hileko azken ostegunetan eta arratsaldeko 19:00etan egitea dela jakinarazi du.

Uztaila eta abenduko osoko bilkurak aurreratu daitezkeela azaldu du.

Idazkariak egin du zuzenketa.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (BILDU 7, EAJ/PNV 3)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako bigarren puntuaren berri eman du:

2.- Informazio Batzordeak eratzea.

Proposamena

Batzorde Informatzaile Iraunkorrek sortzea eta osatzea proposatu da.

1. GAI ARRUNTEN BATZORDE INFORMATIBOA

Jarduera eremuak. Kontrol eta berri ematea:

- Delegazioetako aktak.
- Dekretuak.
- Orokorrean aztertzeko gaiak.

Astero egingo da, asteazkenetan, 17:30etan.

BATZORDEBURUA: IGOR EGUREN IZAGIRRE

KIDEAK:

- .- Belen Maiza Urrestarazu
 - .- Juan Mari Gereñu Aldasoro
 - .- Jose Miguel Santamaría Ezeiza.
 - .- Judith Otegi Lopez de Munillas
 - .- Iñaki Dubreuil Churruca
- .- Eguneko aztergaietan gaiak sartuko dituzten arloetako delegatuak.

2. PLENORAKO GAIEN BATZORDEA

Jarduera eremuak.

* Osoko Bilkura

Osoko Bilkura egin beharreko astea baino astebete lehenago egingo da, asteazkenetan, 17:30etan.

BATZORDEBURUA: Igor Eguren Izagirre.

KIDEAK:

- .- Belen Maiza Urrestarazu
 - .- Juan Mari Gereñu Aldasoro
 - .- Jose Miguel Santamaría Ezeiza.
 - .- Judith Otegi Lopez de Munillas
 - .- Iñaki Dubreuil Churruca
- .- Eguneko aztergaietan gaiak sartuko dituzten arloetako delegatuak.

3. .- KONTUEN BATZORDE BEREZIA

Jarduera eremuak. Osoko bilkurak onartu beharreko aurrekontuetako eta aurrekontuetatik kanpoko kontuen azterketa eta berri ematea.

BATZORDEBURUA: Igor Eguren Izagirre.

KIDEAK:

- .- Belen Maiza Urrestarazu**
- .- Iزارo Intsausti Zinkunegi**
- .- Jose Miguel Santamaría Ezeiza.**
- .- Judith Otegi Lopez de Munillas**
- .- Iñaki Dubreuil Churruca**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Alkate jaunak jakinarazi du 3 informazio batzorde iraunkor sortu direla eta korporatiboek osatuko dutela alderdi politiko bakoitzeko zinegotzi kopuruaren proportzioan.

Sortuko diren informazio Batzordeak honakoak dira:

- 1.- Gai Arrunten Batzordea
- 2.- Osoko Bilkurarako Gaien batzordea.
- 3.- Kontuen Batzorde Berezia.

Idazkari andreak

Azaldu du, eguneko gaien zerrendarekin batera bidalitako proposamenean ipintzen duela, Kontuen Batzorde Bereziaren jarduera-eremua ekonomia eta aurrekontuekin zerikusia duten gaiak aztertzea eta erabakitzea dela. Hala ere, gai hauek aztertzen dituen Ogasun Delegazioa dagoenez, Kontuen Batzorde Bereziak Osoko bilkuran onartu beharreko aurrekontuetako eta aurrekontuetatik kanpoko kontu guztiak aztertu eta jakinaraziko dituela, eta hori izango dela bere eskumena.

Santamaria jna.

Arrazoi pertsonalak tartean (kanpora joan da egun batzuetan), adierazi du, ezin izan duela bere alderdiko zinegotziekin adostu nor joango den batzorde bakoitzera, etab eraz, aldaketaren bat egon daitekeela.

Alkate jn.

Esan du alderdi politiko guztiak gonbidatu zituela Gobernu Batzordean eta Delegazio desberdinetan parte hartzera, eta hasieran behintzat ezezko erantzunak jaso dituela.

Santamaria jna.

Erantzun dio esanez, hasieran bere taldeak (EAJ-PNV) ezekoa eman bazuen ere, Gobernu batzordean parte hartzeko asmoa dutela, nahiz eta ez erabaki zein izango den ordezkaria.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (BILDU 7, EAJ/PNV 3)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.

Alkate jn.

Han dauden guztiei jakinarazi die Informazio Batzordeak proposamen hauetan onartu direnak izango diren arren, legez, bere taldeak Informazio Batzordeak sortu nahi dituela, herritarrentzako eta taldeentzako irekiak eta parte-hartzaileak izango direnak.



3.-Udalbatzaren menpeko Kide Anitzeko Udal Organoetako ordezkariak izendatzea.

Proposamena

Udal honek parte hartzen duen Organo eta erakundeetan korporazioko kideen izendapena.

BARRUKO ORGANO ERABAKITZAILEAK

ENBA Batzordea

- .- Igor Eguren Izagirre
- .- Imanol Iturriotz Lauzirika
- .- Jose Miguel Santamaria Ezeiza
- .- Iñaki Dubreuil Churruca

ERAKUNDE AUTONOMOAK

- HERRI ANTZOKIKO ERAKUNDE AUTONOMOAN

- Igor Eguren Izagirre jauna.
- Belen Maiza Urrestarazu andrea
- Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.

- **SAN JOSE EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOAN**
 - Igor Eguren Izagirre jauna.
 - Belen Maiza Urrestarazu andrea
 - Edurne Gutierrez Jauregi andrea
- **SASIETA HONDAKINAK JASOTZEKO MANKOMUNITATEAN**
 - Igor Eguren Izagirre jauna.
 - Iban Asenjo Garde jauna
 - Belen Maiza Urrestarazu (ordezkoa)
 - Izaro Intsausti Zinkunegi andrea. (ordezkoa)
- **HILTEGIAREN MANKOMUNITATEAN**
 - Iban Asenjo Garde jauna
 - Juan M. Guereñu Aldasoro jauna.
- **UR PARTZUERGOAN:** Igor Eguren Izagirre jauna
- **ENIRIO-ARALAR MANKOMUNITATEAN:** Igor Eguren Izagirre jauna.
- **GOIERRI BEHEKO INDUSTRIALDEAN:** Igor Eguren Izagirre jauna.
- **GOIMEN**en: Iban Asenjo Garde jauna
- **GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA FUNDAZIOAN:** Igor Eguren Izagirre jauna.
- **INGENIARITZAKO KONTSEILU ERREKTOREAN.** Igor Eguren Izagirre jauna.
- **IKASLAN.** Igor Eguren Izagirre jauna.
- **GOIEKI-GOITUR:**
 - .- Igor Eguren Izagirre jauna
 - .- Iban Asenjo Garde jauna.

Mahai gainean geratu da.

- **JUBILATUEN ETXEAN:** Belen Maiza Urrestarazu andrea
- **URDANETA IKASTETXEA:** Imanol Iturrioz Lauzirika jauna
- **EUDEL** Igor Eguren Izagirre jauna.
- **EUSKAL FONDOA** Igor Eguren Izagirre jauna.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Proposatutako izendapenen berri eman du.

Santamaria jna.

Goieki SAko ordezkariak guztira 11 direla adierazi du, eta Ordiziari 2 ordezkari dagozkiola.

Hala ere, Goiekin ordezkariak duten eskualdeko udalerrietan D'Hont legearen irizppidea aplikatzen dutela jakinarazi du, hau da, hauteskundeetan lortutako bozken araberrako indarren proportzionaltasuna.

Horrek esan nahi du, bere alderdi politikoak, EAJ-PNVk Goieki SAn 2 ordezkari eduki beharko lituzkeela.

Asenjo jn.

Ordezkariak izendatzeko eskumena osoko bilkurarena dela esan du eta gero ordezkariak aldatu behar badira, aldatuko direla geroago.

Santamaria jna.

Ordiziari 2 ordezkari dagozkiola errepikatu du, eta ez dakiela eskualde mailan adostu dituzten izendapen horiek.

Maiza and.

Santamaria jaunari gogorarazi dio aurreko legealdian EA abstenitu egiten zela Goiekirekin zerikusia zuten gaitan, hain zuzen ere ez zeudelako Santamaria jaunak azaldutako sistemarekin ados, eta Santamaria jaunak beti esan izan duela Elkarteko Lehendakariak onartzen eta erabakitzen zuela zein ziren ordezkariak.

Alkate jn.

Sortutako eztabaida ikusita 5 minutuko etenaldia eskatu du, eta bere taldeko zinegotziak atera egin dira erabaki bat hartzeko.

Bilkura berriro hasi denean, Alkateak azaldu du Elkartean alderdi politikoaren ordezkariak egotearen aldekoak izan direla beti eta hori defendatzen dutela.

Gainerako erakunde eta elkarteetarako proposatu dena onartzeko proposamena egin dute eta Goiekiko ordezkarien izendapena momentuz alde batera uztea, eskualde mailan galdetzeko eta hurrengo osoko bilkuran dagokion erabakia hartzeko.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (BILDU 7, EAJ/PNV 3)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako laugarren puntuaren berri eman du:

4- Tokiko Gobernu Batzordeko kideen, Delegazioko ordezkarien eta alkateordeen izendapenari buruzko Alkatearen ebazpenak jakinaraztea.

640 - DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSIRIK:

Toki-Jaurbidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 23.1. atalak eta Toki-Erakundearen Antolakuntza, Jarduera eta Lege-jaurbidea arautzen duen azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege-dekretuko 41.3 eta 52.2 atalek ematen didaten aginpideak.

ONDORENGOA ERABAKI DUT:

1.- Honako hauek Gobernu Batzordeko kide izendatzea indarrean dagoen legediak ematen dizkien aginpide eta burupea dutela:

- Igor Eguren Izaguirre jauna. Alkatea eta Udal honetan ordezkari-tza duen BILDU koalizioko partaidea.
- Belen Maiza Urrestarazu andrea. Udal honetan ordezkari-tza duen BILDU koalizioko zinegotzia.
- Iزارo Intsausti Zinkunegi andrea. Udal honetan ordezkari-tza duen BILDU koalizioko zinegotzia.
- Juan M^a.Gereñu Aldasoro jauna. Udal honetan ordezkari-tza duen BILDU koalizioko zinegotzia.

2.- Aipatu zinegotziei dekretu hau jakinaraztea, udalbatzarrari egingo duen lehendabiziko osoko bilkuran honako dekretu honen berri ematea eta laburpena Lurraldeko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3.- Dekretu hau Alkatetzaren dekretu-liburuan kopia beharko da hitzez hitz, eta behean ageri den dataren hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Igor Eguren Izagirre Alkate jaunak agindu eta sinatzen du, Ordizian, bi mila eta hamaikako ekainaren hogeitazazpian eta hori guztia nik, Idazkariak, ziurtatzen dut.

641 - DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSIRIK:

Toki-Jaurebidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.2 atalak eta Toki-Erakundearen Antolakuntza, Jarduera eta Lege-jaurebidea arautzen duen azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege-dekretuko 41.3 eta 46.1 atalek ematen didaten aginpideak.

ONDORENGOA ERABAKI DUT:

1.- Honako hauek **alkateorde** izendatzea zerrendatzen den eran.

Lehenengo alkateordea: Belen Maiza Urrestarazu andrea, Udal honetan ordezkari den BILDU koalizioko zinegotzia.

Bigarren alkateordea: Izaro Intsausti Zinkunegi andrea, Udal honetan ordezkari den BILDU koalizioko zinegotzia.

2.- Aipatu zinegotziei dekretu hau jakinaraztea, udalbatzarrari egingo duen lehendabiziko osoko bilkuran honako dekretu honen berri ematea eta laburpena Lurraldeko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3.- Dekretu hau Alkatetzaren dekretu-liburuan kopia beharko da hitzez hitz, eta behean ageri den dataren hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Igor Eguren Izagirre Alkate jaunak agindu eta sinatzen du, Ordizian, bi mila eta hamaikako ekainaren hogeitazazpian eta hori guztia nik, Idazkariak, ziurtatzen dut.

649 - DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSIRIK:

Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Arautegia, azaroaren 28ko 2568/86 Errege-dekretuko 43.5 b) atalek ematen didaten aginpideak.

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

1.- Honako hauek ordezkari izendatzea ;

- **Hirigintza-diziplina, Hirigintza eta Obra Handietako** Delegazioan: Igor Eguren Izagirre jauna.
- **Obra txiki eta Zerbitzuen delegazioan:**Iban Asenjo Garde jauna
- **Administrazio delegazioan: Igor Eguren Izagirre jauna.**
- **Ogasun** delegazioan:Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.
- **Kultura delegazioan:**Belen Maiza Urrestarazu andrea
- **Euskara** delegazioan. Imanol Iturrioz Lauzirika jauna
- **Gizarte Ongizate** Delegazioan. Belen Maiza Urrestarazu andrea
- **Berdintasuna:** Izaro Intsausti Zinkunegi.
- **Partaidetza eta komunikazioa delegazioan.**Igor Eguren Izagirre jauna.
- **Sustapen, Garapenaren eta komertzio** delegazioan.Juan M. Guereñu Aldasoro jauna.
- **Garapen Iraunkorra eta Mugikortasuna** delegazioan: Iban Asenjo Garde jauna
- **Kirol** delegazioan. Juan M. Guereñu Aldasoro jauna.
- **Gazteria** delegazioan.Edurne Gutierrez Jauregui andrea.

2.- Aipatu zinegotziei dekretu hau jakinaraztea, udalbatzarrari egingo duen lehendabiziko osoko bilkuran honako dekretu honen berri ematea eta laburpena Lurraldeko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3.- Dekretu hau Alkatetzaren dekretu-liburuan kopiatu beharko da hitzez hitz, eta behean ageri den dataren hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Igor Eguren Izagirre Alkate jaunak agindu eta sinatzen du, Ordizian, bi mila eta hamaikako ekainaren hogeitazazpian eta hori guztia nik, Idazkariak, ziurtatzen dut.

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuari heldu dio.

5.- Osatutako Talde Politikoen eta horien bozeramaileen berri ematea.

Segidan Udalean jaso diren Udal Alderdi Politikoen osaketarako jakinarazpenak.

Honela, ondorengoak osatu dira:

BILDU Alderdi politikoa:

IGOR EGUREN IZAGIRRE
BELEN MAIZA URRESTARAZU
IMANOL ITURRIOTZ LAUZIRIKA
EDURNE GUTIERREZ JAUREGI
IBAN ASENJO GARDE
IZARO INTSAUSTI ZINKUNEGI (bozeramailea)
JUAN MARI GEREÑU ALDASORO

EAJ-PNV alderdi politikoa

JOSE MIGUEL SANTAMARIA EZEIZA (Bozeramailea)
ARANTZAZU GARIN GARMENDIA
JUDITH OTEGI LOPEZ DE MURILLAS
JOSE IGNACIO ITURRIOZ GOTOR
BITTOR IÑAKI BOLINAGA ARCELAY

PSE-EE /PSOE alderdi politikoa

IÑAKI DUBREUIL CHURRUCA (Bozeramailea)

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuari heldu dio.

6.-Alkateak dedikazio eskusiboa izateko proposamena.

Proposamena

Entitate Lokalen Antolamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduko 13.4 artikuluan udal erantzukizunak erabateko dedikazioan ariko diren karguen izendapena arautzen du.

2011ko aurrekontua onartu da, eta bertan Alkatea erabateko dedikazioan aritzea aurreikusten da, dagozkion ordainsari eta guzti.

Hori guztia ikusita ,honako proposamen hau egin zaio udalbatzarrari

AKORDIO PROIEKTUA

1.- IGOR EGUREN IZAGIRRE, Korporazio honetako Alkate izendatu, erabateko dedikazioan aritzeko onartzea, hilero dagokion soldata gordinarekin, guztira 3.300.-euro.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Santamaria jna.

Abstenitu egingo direla jakinarazi du. Nahiz eta argi izan alkateak dedikazio eskusiboa izan behar duela, ez dute argi ikusten proposatutako ordainsaria egokia denik.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 3(EAJ/PNV 3)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuari heldu dio.

7.- Udal taldeen eta zinegotzien diru-kopuruak.

Proposamena

Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 75. artikulua dio Udalbatzako kideen ordainketaren eta kalte-ordainen sistema Udalaren Osoko Bilkurak onartuko duela.

AKORDIO PROIEKTUA

- 1. Eratutako udal talde bakoitzaren zinegotzi bakoitzeko 150.-euro hilabeteko ordainketa onartzea.**
- 2. Alkatetzako delegatuen ordainketa hilean 650.- euroko ordainketa onartzea.**
- 3. Salaketak jasotzeko erantzukizunik ez duten zinegotzientzat hilean 325euroko ordainketa onartzea.**
- 4. Alkatetzaren ordainsaria hilean 3.300.- euro izan dadila onartzea BILDU alderdiaren irizpideen arabera.**
- 5. Aipatu diru-kopuruak, Udaleko langileen soldaten proportzio berean eguneratuko dira.**
- 6. Ordainketa hauek Organo Erabikitzaileen deialditara bertaratzeari baldintzatuta egongo dira.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Intsausti andreari eskatu dio bere alderdiak hartutako erabakia azaltzeko:

Intsausti andrea

Krisi garaia eta bere alderdiaren posizionamendua kontuan hartuta, Alkatearen soldata jaitea proposatzen dute, lehendik zegoena gehiegizkoa iruditzen baitzaie.

Kontu-hartzaile jna.

Hitza hartu du, eta adierazi du, araudira egokitzeko, 2007ko kontuei buruz TVCDPk bere txostenean ipintzen duen bezala, kide anitzeko erakundeetako zinegotzien asistentziak baldintzatu behar duela.

Hori dela eta, nahiz eta proposatutako kopuruak onartu, asistentziaren araberako kopuruak zehaztu egin beharko dira, osoko bilkurarako akordio baten bitartez.

Santamaria jna.

Proposatutako zenbatekoak egokiak iruditzen zaizkiola esan du baina abstenitu egingo direla adierazi du, inork ez dielako alde aurretik galdetu edo komentatu.

Alkate jn.

Irizpidea dela esan dio. ??????

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 3 (EAJ/PNV)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak presazko bidetik sartutako hurrengo puntuari heldu dio.

8.- Borondatezko lankideentzako diru-laguntzak.

Proposamena

Ipar-Hegoa kooperazio programetan parte hartzeagatik Ordziako gazteei ematen zaizkien diru-laguntzak arautzen dituen arandia jarraituz eta 2011 urteko ekitaldiari dagokion deialdia egin ondoren,

Honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

NEREA VILLAR ALZOLA (Ordizia, 1988) ordiziar gazteari 1500 euroko dirulaguntza ematea onartzea Perura kooperaente gisa joateko.

NEREA VILLAR haur hezkuntzan dauden umeekin lanean ariko da, eskolaz kanpoko denbora dinamizatuz, ikastetxeetako irakasleei hainbat alorretan lagunduz. Perón, abuztuan, Mundo Voluntario agentziaren bidez gauzatuko du ekintza.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Alkate jn.

Udalbatzak hala erabakitzen badu puntu hau eguneko gai ordenan sartu nahi du.

Aurkeztutako gaiaren presazko izaera bozkatu da.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Osoa.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (BILDU 7, EAJ/PNV 3)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Ondorioz, aurkeztutako gaiaren presazko izaera onartu da.

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Adierazi du, Nerea Villar Alzola ordiziar kooperatzaile gazteari 1.500 €ko diru-laguntza ematea proposatzen dela, Perura egingo duen bidaia ordaintzeko. Haur eskolako umeen eskola ordutik kanpoko tarteak dinamizatuko ditu, irakasleei laguntza eskainiz abuztu osoan zehar.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (BILDU 7, EAJ/PNV 3)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut.